

GURE JENDEAK: ANIZTASUNA ETA KOHESIOA

GIZARTE FOROA - CIVICAN PAMPLONA-IRUÑEA, 28/05/2018

Herritarren mahaietan jasotako galderei erantzuna emateko, Gizarte Foro hau hiru bloketan banatu dugu, agertutako korapilo-multzo ezberdinak modu egokian askatzeko nahian. Lan-saioan ezberdinen arteko elkarrizketa izango da helburu nagusia eta, hori abiapuntu, zoru komun minimoak ezarri, beti txikitik handira jotatuz.

1. ABIAPUNTUA: Lurraldea(k) eta identitatea(k)

2. BIDEA: Hezkuntza

3. BARNE LOTURAK: Kohesio bidean (gizarte konfiantza)



ABIAPUNTUA: Lurraldea(k) eta identitatea(k)

Abiapuntuan identitate, herritar eta lurralde anitzak izango dira eztabaidagai. Tartean, aniztasunaren kudeaketa, identitate anitzak, kohesioa eta lurraldeen kohesioa agertzen direla, betiere begirada etorkizunari begira jarriz, egitasmo partekatu posibleak irudikatuz.

Herritarrek identifikatutako oztopoak:

- Estereotipo eta aurreiritziak
- Identitate aniztasuna, getoak
- Ezberdintasun sozialak
- Indibidualismoa eta konfiantza eza
- Banaketa administratibo, kulturala...
- Gutxiengoaren integrazioa

Herritarren zoru komuna:

- Askatasuna, zintzotasuna, enpatia, konfiantza, konpromisoa...
- Auzolana eta elkarlana
- Lurraldearekiko lotura
- Aniztasunaren onarpena

HERRITARREN GALDERAK

- ❖ **Identitatea: nola kudeatu daiteke identitateen aniztasuna? Zer proposamen zehatz egin daitezke identitateen aniztasun hori kudeatzeko?**
- ❖ **Lurraldea eta herritarrak: norekin kohesionatuko gara? Nola kohesionatuko gara? Zer tresna ditugu kohesio hori lortzeko? Eta zer tresna falta zaizkigu?**
- ❖ **Egitasmo partekatua(k): Euskal lurraldeen arteko eta baitako kohesioa lortzeko ze egitasmo partekatu aurreikus ditzakezue?**